

# Ipar Irlandako bake prozesua arriskuan dagoela onartu du Mitchell bitartekariak

Adamsek ez du aurrerapausorik espero UUPren asteburuko biltzarra arte


Erredakzioa / Donostia

Ipar Irlandako bake prozesua kinka larrian dagoela ziurtatu zuen atzo George Mitchell bitartekariak. Estatu Batuetako senadore ohiaren arabera, bake elkarrizketek aurrera egiten ez badute zer gertatuko den iragarzea ezinezkoa da. Prozesuaren porrot arriskuaz mintzatu da Gerry Adams Sinn Feineko buruzagia. Aurrerapausorik ez du espero UUP alderdi unionistak asteburu honetan egingo duen biltzarra arte.

BELFASTEKO Stormont gazteluko negoziazioetan berriro murgildu aurretik, Mitchelllek hitzaldi bat eman zuen atzo goizean Dublinen, nazioarteko bankarien aurrean. Horretan, bitartekariak azpimarratu zuen porrot arriskua benetakoa dela. «Prozesua kinkan dagoela esatea ez da, inondik ere, exajerazioa. Benetako arriskua dago aurrera egiten ez badu», adierazi zuen.

Duela hilabete hasi ziren iazko Ostiral Santuko bake ituna berriro aztertzeko, baina epe horretan ez dute aurrera egin, Mitchelllek berak onartu zuenez. Alta, Estatu Batuetako senadore ohiak akordio horren aldeko apustua egin zuen: «Akordio hori da aspaldian bakerako itxaropen handiena. Martxan jartzen ez bada, Ipar Irlandako herritarrek izango duten etorkizuna ez dago aurreraterik».

Iazko neguz geroztik, prozesua etenik dago, eta desblokeatzeko negoziazio luzeak egin arren, ezer gutxi



George Mitchell bitartekari estatu batuarra, joan den uztailen, Stormontera itzuli zenean.

aurreratu da. Funtsean, UUP alderdi unionista nagusiak ez du onartzen Sinn Fein alderdi errepublikanoari dagozkion bi ministerioak ematea Ipar Irlandako gobernu autonomikoan, baldin eta aurretik IRAk armak entregatzen ez baditu. Argudio hori «bete-rea ez partitzeko aitzakia hutsa» dela erantzun dio Sinn Feinek, armen entrega ez baita gobernu osatzeko baldintza.

## UUPren kongresua

Joan den astelehenean, UUP eta Sinn Feineko negoziazio-tzaileak bigarren aldiz elkarrizketatu ziren. Bilerak, ordea, ordubete baino gutxia-

go iraun zuen, talde bakoitzak bereari eutsi ziolako. Bilera gehiagorik ez da espero datorren astea arte. Izan ere, hurrengo asteburuan biltzarra egingo du UUPk, eta borroka gogorra espero da negoziazioak erabat uztearen eta jarraitzearen aldekoen artean. Ikusteke dago ere David Trimble unionistaren lidergoa sendotu ala apaltzen denetz.

Sinn Feinen aldetik, ezkor azaldu da Adams liderra. «Ostiral Santuko Ituna sinatu genuenetik urte eta erdi igaro da, baina oraindik ez dira instituzio politikoak martxan jarri, beste neurriak harri horren gainean abian jarri behar diren arren. Krisi

politikoan gaude. Inertziak hil dezake Ituna», ziurtatu zuen Sinn Feineko liderrak astelehenean, *Irish Times* egunkarian.

Bestetik, Ipar Irlandako RUC Poliziak operazio zabala egin zuen atzo Belfast mendebaldean loialisten bonba bat aurkitzeko. Berri agentzia batera egindako deian, Esku Gorriaren Defendatzaileak izeneko talde armatuak ziurtatu zuen taxi bati eraso egin nahi izan ziotela, baina lehergailuak ez zuela eztanda egin eta han utzi zutela. Esku Gorriaren Defendatzaileak iazko udan sortu zuten su-etena errespetatzen duten UFF eta LVF talde loialistetakiko kritikoei.

Igandeko bozen emaitzak onartuko ez dituela esan du Madeirako presidentek

■ Timorko gaiarekin sozialistek «iritzi publikoa toxikatu» dutela salatu du

Efe / Lisboa

ALBERTO JOAO JARDIM Madeira uharterako presidentek ziurtatu duenez, bere eskualdeko gobernuak ez ditu onartuko Portugalgo Legebiltzararako bozetako emaitzak. Madeirako lehendakaria PSD oposizioko alderdi nagusiko kide da, eta eztabaida handia sortu zuen joan den irailean, Ekialdeko Timorreko herriari ez ziola lagunduko iragarri zuenean.

«Ez ditut hauteskudeetako emaitzak onartuko, iruzurrez beteta baitaude eta iritzi publikoa toxikatu dagoelako Timorri buruz hitz egiteko sortutako propagandarekin», adierazi du Jardimék. Azken hilabeteotan Ekialdeko Timor izan da gai nagusia Portugalen, hauteskunde kanpainaren aurretik, portugesek elkartasuna adierazi nahi ziotelako beren kolonia izandakoari.

Jardimen arabera, bote-rean dagoen PS alderdi sozialistak bere probetxurako erabili du Ekialdeko Timorreko elkartasuna, eta horregatik iragartzen diote azken inkestek gehiengo osoa. Gai horretan PSD alderdiko buruzagi Jose Manuel Duraorekin bat egin du Madeirako lehendakariak.

Azken hitzaldietan, Jardimék «okupazioko indar kolonialez» hitz egin du, eta Lisboako kazetariak sartu ditu talde horretan.

## laburrean

### S E R B I A

#### ■ Oposizioak Draskovicen aurkako atentatuaren tesiari eutsi dio

SERBIAKO oposizioko alderdiek atzo berretsi zuten, Vuk Draskovic SPO alderdiko buruzagiak atentatua jasan zuen igandean. Kamioi bat gainera etorri zitzaion Draskovicen eta bere taldekide batzuen autoei, eta talkaren ondorioz lau lagun hil ziren. Kamioilariak ihes egin zuen, eta artean ez dago oso garbi atxilotu duten ala ez. Atzo, SPOko 600 lagunek omenaldia egin zieten hildakoei, eta atentatuaren

tesiarri eutsi zion Draskovicék. Oposizioko prentsak azpimarratu duenez, kamioilari hainbat ordu egin zituen geldirik kafetegiko batean, baina telefono dei bat jasotzean ekin zion bideari.

### T U R K I A

#### ■ Ehun lagun zauritu dira lurrikara batean, hego-mendebaldean

GOIZALDEKO lauretan lurrikara batek astindu egin zuen Marmaris hiri turistikoa, Turkiako hego-mendebaldean. Atzo arratsaldeko datuen arabera, lurrikarak 103 lagun zauritu zituen, baina horien artean bakarra

zegoen larri. Alta, 5,2 graduko lurrikarak izua eragin zuen, abuztuko hondamendi handia gogoan zutelako denek. Abuztuko lurrikararen azken balantzeak dio 15.826 lagun hil zirela.

### TXEKIAR ERREPUBLIKA

#### ■ Erregimen sozialistaren aldekoen kopurua handituz doa inkestetan

TXEKIARREN %35ek nahiago dute 1989. urte bitartean izan zuten erregimen sozialista, gaur egungo demokrazia parlamentarioa baino. STEM agentziaren azken inkestaren arabera, % 34k nahiago dute oraingo erre-

gimen politikoa, eta % 21ek uste dute biak parekoak direla. KSCM alderdi komunistak ere gora egin du boto asmoetan.

### E S P A N I A

#### ■ Miravete sarjentuaren kartzela zigorra berretsi du Gorenak

AUZITEGI GORENAK berretsi egin zuen atzo Juan Carlos Miravete sarjentuaren aurkako 15 urteko espetxe zigorra. 1997an, mozkorturik zegoela, Miravetek pistolaz hil zuen Samuel Ferrer kaboa Candanchuko kuartelean.